

GIZARTE LANGILEA

Gizarte-langileek honako zereginak beteko dituzte:

- 1.- Hezkuntza-premia bereziko ikasleen gizarte- eta familia-ikerketa eta balioespena egitea. Zuzeneko gizarte eta hezkuntzako partehartze-proposamena egitea edo bidezko errekursora bideratzea, eta, ondoren, kasuaren jarraipena eta ebaluazioa.
- 2.- Ikasleen gizarte-kulturako edukiri lotutako alderdiei buruzko informazioa ematea.
- 3.- Familia eta ikastetxeen arteko lankidetzaharremanak sustatzea; horretarako alderdi bakoitzari eskaerak testuinguruan jartzen, lankidetzako aukerak mailakatzen eta alderdi bakoitzak egokitzen hartzen duen erantzuna ematen lagunduko diote.
- 4.- Dauden baliabideei eta erabiltzeko bide egokiei buruzko informazioa eskaintzea, komunitatearen zerbitzuen eta hezkuntza-sistemaren arteko koordinazioa errazteko.
- 5.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat edo beren familientzat gizarte-egoera gutxituan egoteagatik onuragarriak diren hainbat baliabidetara hel daitezen kudeatze-lana egitea, . Ikasle hauek hezkuntza-sisteman sartzeko eta egoteko behar diren jarduerak garatzea.
- 6.- Gutxiengo etnikoko ikasleentzat, atzerritarrentzat edota gizarte-egoera gutxituetan daudentzat diren harrera-programetan, eskolaratzeko proposamenetan eta eskolaratzea osatzeko programetan parte hartzea.
- 7.- Gizartean ez egokitzea eragin dezaketen egoerei aurre hartzeko lagungarriak gerta daitezkeen arrisku-adierazleak detektatzen parte hartzea. Beharrezko baliabideak garatzeko plangintzan parte hartzea.
- 8.- Ikastetxeetan agertzen diren arazoak konpontzeko programak egiten parte hartzea. Arazo hauen arazoia gizarte- edo familia-ingurunearen ezaugarrietan dago (absentismoa, higiene-osasuna, portaera disruptiboak, familia-gatazkak, gizarte- eta kultura-ingurune gutxietsikoa izatea...).
- 9.- Familiei zuzendutako prestakuntza-programak garatzen parte hartzea.
- 10.- Lanpostuarekin lotutako prestakuntza-programetara joatea.
- 11.- Eskatzen dizkieten txostenak eta datuak eskaintzea, baita bilera teknikoetan eta laneko bileretan parte hartzea ere, bertaratzea eskatzen bada.

Funtzio hauek laguntzen zaien ikasleekin zerikusia duten gainontzeko profesionalekin koordinatuz garatuko dira.